



Oinarriak – 2018

1. Edozein pertsonak, taldek edo koadrilak hartu ahal izango du parte: norberak bakarrik, ikasle taldeek, kirol taldeek, koadrilek, kultur taldeek...
2. Adinari eta bizitokiari dagokienez, mugarik ez dago: edonork har dezake parte, **bertsomovie**an euskarazko bertsoak txertatzen dituen bitartean.
3. **bertsomovie**a bertsoak dauzkan bideo bat da, **bertsomovie** izateko bi elementu horiek izatearekin nahikoa da. Gutxienez bertso bat eduki behar du, eta euskaraz izan.
4. Bideoak, amaieran “gustatu bazaizu, bozkatu www.bertsomovieda.com webgunean” leloa azaldu behar du, garbi ikusi eta ulertzeko moduan, eta gutxienez 7 segundoko iraupenarekin.
5. Parte hartzeko talde edo pertsona bakoitzak nahi adina **bertsomovie** aurkeztu ahal izango ditu.
6. Bidaltzeko pausuak:
 - ⑩ Lehenik, Internet bidez, nahi den webgunera (youtube, vimeo, euskaltube...) igo bideoa
 - ⑩ Ondoren, www.bertsomovieda.com webgunean **Parte hartu** atalean dagoen inprimakia bete:
 - ⑩ Izen-abizenak (taldea izanez gero, kontaktuko pertsonarenak)
 - ⑩ Herria
 - ⑩ Harremanetarako emaila
 - ⑩ Harremanetarako telefonoa
 - ⑩ Kategoria:
 - ⑩ GAZTEAK: **DBH 4ra artekoak, DBH 4koak barne**
 - ⑩ HELDUAK: Gainerako guztiak
 - ⑩ Bideoaren helbidea (aurrez igotako bideoaren interneteko helbidea)
 - ⑩ **bertsomovie**ko bertsoak idatziz (testu-fitxategi batean)

7. Sariak:

⑩ **GAZTEAK:**

⑩ LEHEN SARIA: **300 €**bertsosome onenari

⑩ **HELDUAK:**

⑩ LEHEN SARIA: **1000 €**bertsosome onenari

⑩ **SARI OROKORRAK:**

⑩ Ikusleen saria: **500 €**www.bertsomovieda.com webgunean botorik gehien jasotzen dituen **bertsosomeari**

⑩ Bertso onenak: **250 €** epaimahaiaren ustez bertso orijinalik onenak dituen **bertsosomeari**

⑩ **200 €**ko **bi sari** gehigarri, **bertsosome** zein egile ezberdinei aipamen gisara.

8. Epeak:

⑩ Lanak aurkezteko epea: 2018ko **Apirilaren 9**tik 2018ko **Apirilaren 20**ra

⑩ Webgunean bozkatzeko epea: 2018ko **Apirilaren 23**tik 2018ko **Apirilaren 27**ra

9. Epaia eta sari-banaketa: 2018ko **Maiatzaren 3**an izango da Beasainen, eta sarituen izenak aldeztatik emango dira jakitera hedabideetan.

10. Saritutako talde bakoitzak ordezkari bat gutxienez bidali beharko du sari-banaketarako egingo den ekitaldira.

11. **bertsomovieda** lehiaketan parte hartzeak arau hauek onartzea dakar. Antolakuntzak eskubidea izango du jasoko diren bideoak Interneten eskegitzeko eta zabaltzeko, hala nola beste hedabideetan zabaltzeko ere.

12. Antolakuntzak bere esku izango du elementu iraingarriak dauzkaten bideoak lehiaketatik kanpo uzteko aukera.

13. Antolakuntzak oinarri hauek aldatuko balitu, parte hartzaileei garaiz eta behar bezala jakinaraziko lieke.

Antolatzailea:



Arrano kultur-elkartea

Babesleak:



Beasaingo Udala



ORKLI Koop. Elk.